


ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

118n. Zenbakia

Jorraila
Aprilla
1988



INDAUTXUKO BARATZA

- BILBO BARRIZTUA
- BILBO APAINDUA

MENDIAK

BAIO MENDI ARABARRA

Mendi-zaleentzat mendi guztiak dira atsegingarriak, geiago edo gitxiago, danak dabelako zer-ikusia ta zer ikasia.

Zelan ez maitatu Euzkadi'ko mendiak mendigoizale euzkotarra danak? Jakiña! ainbat geiago, mendi orretan eta mendi orreatatik ikusi geinkelako gure lurraldearen edertasuna, eta gure aintziñako edestia pizka bat ikasi.

Baio, Araba'ko Sorkaldean, Entzia mendidi edo mendi-lerroan dago eta Naparra'ko Urbasa aldera azkenengo mendi-gaillurra da. Beren 1.193 neurkin goraka dituala eta, arrune txiki batzuk aipatu dogun Urbasa gandik zakabanatutzen dauzala.

Mendi onek, ikuskizun bikaiñak ditu, batez be Araba-aldeko zelaikadarantza eta Naparra'ko Zakona lez eza-gutzen dogun alderdira.

* * *

Mendi onetara igoteko, ia anei-(milla) ta berreun neurkin gora joan bear da. Erreza da igoteko berebillez bertara zuzentzen danarentzat eta, ez ain sailla oiñez geiago ibilli nai dauanarentzat, bere inguruko zelaikada belartsu zabalak, anei neurkiñetik gora aurkitzen diralako. Ainbat pagadi dira eta udabarrian asita aberez beterik.

Gaur-egun mendietara goazen geienak berebillez goazen ezketiño, Baio orretara joateko biderik egokiena, Bizkai'tik eta baita gipuzkoar askorentzat be, Agurain'en Salvatierra gora Opakua erritxu'tik gora, bitxabalez, Opakua ganera (1.020 neurkin goraka) joatea da eta an artu ezkererako bitxabaltxua eta jarrai bertatik aneurkin edo kilometro ta erdi edo zerbait geiago, beunerarte, bertan laga burdia eta, zugaztiak zear eta marrazkiak irakatsiten dabenez, beti Ipar-Sorkalderantza eta, sarritan amildegian egalaletik gorengo gaillurrera eldu artean. Gaillur on atx-arri utsezkoa da eta, bere goi-goian aurkitzen da mendi-kutxa eta gesiko maia.

* * *

Lenago esan dogunez, berebillez doiana, joan leiteke Gasteiz-Iruña'rako bitxaletik eta gero eskomara S. Erroman'era igon, bertan burdia laga ta aldapa gora Baio orretara. Lenengo aipatu dogun bidea baiño saillagua da azkenengo au.

Lenen berebilla lagateko esan dogun beune zelaitik pizka bat Ego aldera igon eta goitxuan aintziñako illobi ezaugarri batekin aurkituko gara, Jakiña! gure arbasoak egindakoa.

Ezagutu, irakurle euzkotarra, gure mendi bikaiñak, gure Aberria'ren zati osasungarriak dira-ta. (Orain Opakua ganetik Urbasa'ra bitxabala dago) goirik-goi.

BASA-JAUN

"ZER" ALDIZKARIA-DIRUZAIN-TZA

OARRA

Ez dira gitxi gure ZER onen igazko ordain-saria emon ez dabenak, Eskaritxu bat egiten dautzuegu: Ordaintzeko erarik errezena txeke bat bialtzea dozue. Igazkoa ordaintzekotan 800 pezeta eta aurtengoa ordaindu nai ba'dozue, beste 1.000 pezeta.

Diru - aldetik naiko estu gabiltz, arren eskatzen dautzuegu ba: Artu egizue kontu idegiko txeketegia eta bialdu dirutza orregaz EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ri. Sartu txekea . karta-azal baten eta bialdu zuzenbide onetara:

EUSKERAZALEAK
Colon de Larreategi, 14, 2.^a
48001 BILBAO

ESKERRIK ASKO!!!

ALKAR IZKETEIA ALA GOGORKERIA

Euskalerriaren eta munduko erri guztien errigintza-arazoak berotasun larregi barik begiratu ezker, erri-arteako arazoak bideratzeko erarik onena alkar-izketeia da, baiña begiratu dagigun apur bat gure erriaren kondairara.

ALKAR-IZKETEIA

Erriak alkarragaz zer-ikusiak izaten asi ziranetik, naizta gogor-aldiak izan, geienetan arazoak alkar-izketaz konpontzen ziran, gure erriaren eta laterriaren artean beintzat. Au difiogunean azkenengo lau gizaldiak doguz gogoan, zelan edo alan Iberian batasuna egin zanetik, Errege Katolikuen alditik, asita. Alkar-izketeia orren lekuko ta ondoren ziran Erregeak gure Eleizetan egiten ebezan ziñak.

Baiña alkar-izketeia orretan gure gizon aundiak ez ziran izan trebeak, ez eben jakin eurenari eusten eta orregaitik berbazko bultzakeri orretan atzerantza egin genduan eta askatasuna galtzen joan.

Gure gizon aundiak ardura geiago artzen eben Erregea goratzeko eta berari lurrun gozoak eskintzeko, erri-eskubideak zaintzeko baiño.

Gero bean sortzen ziran goraberak eta erabagiak onartu-eziñak, eta okerkeria zuzentzeko asmau zan "pase fora!" edo erri-baimena eta geroago ontzat artu zan jokabidea "se obedece pero no se cumple" edo esangitza bai, egiterik ez.

Alkar-izketeiaren bideak ondoren txarrak ekarri ebazan ba, baiña geure makaltasunagaitik.

Alkar-izketeia jatorrak aide bi bear dauz, biak sendoak: Norberanari eutsi eta bestearenari amor emon, baiña bata naiz bestea larregi egin ezker ondamedia dator.

* * *

GOGORKERIA

Alkar-izketeiak ondoren egokia lortzen ez dauanean, beste bidea agertzen da taster, gogorkeriaren bidea. Eta au negargariagoa da. Ondo dakigu, zori txarrez. Begiratu joan zan gizaldiaren 36n.urtean asita izan ziran karlatarren guda odoltsuak, gizaldi onetako 36n.urtean asi zan guda negargarria eta onen ondorena dan gaurko giro barri eta larria.

Alkar-izketan trebeak izan ez garalako, apurka-apurka galdu ziran eskubideak, guda egiten zanean bat-batean galtzen genduzan.' Au bai zori txarra, bide batetik naiz bestetik beti galtzen urten bear.

Argi dago bide biak, trebetasun bako alkar-izketeiarena eta gogorkeriarena, galbideak dirala erriaren aurre-rapenerako. Eta, gaiñera, bide bi orreik onuragarri ba'litzaz be, onartu-eziñekoak dira.

* * *

BIDE ZUZENA

Esandako jokabide oker bi orrein artean, beste bide bat dago, estua baiña urtenbide onekoa, alkar-izketeia zuzenaren bidea.

Aspaldiko amar bat urtean egin dira alegiñak bide au artzeko eta alegin orrein ondorena dogu Gernika'ko Araudia eta ortik etorri diran eskubide ta askatasun asko. Bear ba'da, azkenengo gudan galdu ziran eskubideak eta geiago lortuta dagoz, baiña oraindiño urrin dago gure Erria zor jakon jabetasun osoa Iortzetik. Aurrera egin-bearra dago eta aurrera egiteko ez da beste biderik ikusten, kondaira eskuan data, alkar-izketeia zur eta trebearena baiño.

GAURKO ARAZOA

Oiñarri-eritxi orreik agertu ta aldeztu arren, nork ez dauko buruan Arjelia'n asiak izan diran artu-emonen arazoa? Nor ez da minduten artu-emonak aurrera doazela uste dogunean, ilketak edo izukerizko ekintzak izan dirala entzutean?

Artu-emon orreik isillean izan dira, baiña jakitekoa litzake zergaitik barrero izukerizko ekintzetara jotzen dan.

Dana data, alkar-izketeia ta artu-emonak dira urtenbide bakarra!

Gitxi ezagutua dan euskal-idazlea: ENBEITA'tar IMANOL (1884-1946)

Ona euskal-idazle bat, gitxi ezagutua nire ustez, gure idazle on artean zor jakon maillarik autortu ez jakona. Enbeita'tar Imanol Muxikako Urretxindorra izen ordeaz ain ezaguna dogun Kepa zanaren anaia da eta, ain zuzen, Keparen ospeak anaiaren izena illunpean itxi dauala esan geinke. Baiña nok daki edo nok gogoratzen dau Urretxindorra izen orde on Kepak Imanolentzat erabilten ebalatzen? Olan erakutsi eban anai au bera baiño bertso-asmatzaille kaskarragotzat ez eukala, nire ustez. Eta gero, Imanolek beste alderdi bat dauko, beste arlo bat, euskeraz geiago landu ebana: gazetalaritza. Jakin-garria eta aintzat artzekoa dala uste dot arlo onetan egin eban lana, ixilla baiña ederra, Zornotzan *Jaungoiko-Zale'n* asi eta gero *Euzkerea* aldizkarian eta *Euzkadi* egunkarian, 1936ko gerratean ixildu bearra etorri jakon arte. Euskal-gazetalaritzan gure egunotako idazleentzat ez eban orduan ikasbide txarra emon.

GAZTERIK BERTSOLARI

Enbeitatarrak bertsolari eskolea etxean bertan eukun. Bertsolaria eben aita ta bertsolari urten eben aren iru semek: Kepak, Imanolek eta Santik, azkenengo onen bertsorik gitxi ezagutzen badogu be. Kepa da iruretan zarrena eta ospetsuen egin zana; Imanol bigarrena, 1884n jaioa, Kepa baiño sei bat urte gazteagoa.

Anai bion izenak XXgarren gizaldi onen asieran urten eben lenengoz plazara euren bertso-sail batzuekin, 1902-1903ko urteetan ateraten zan IBAIZABAL astekarian. Eta bein, biak batera datoz, batak besteari botatako zazpiña bertsokaz: *Bei zarraren* bertsok. Ezagunak dira Kepa Urretxindorraren bertso-liburua irakurri dabenentzat. "Musikan gertatua" titulutzat ebela agertu ziran IBAIZABAL'en 1903ko zemendiaren, azaroaren 22n. Sarreratxo bat ipiñi deutse bertsok. Lau aita- seme bertsolari bizi dira etxean, morroi bat eurekaz eukela. Gaualdera morroia kortara joan da bei zarrari eznea eratzin naian, aparitan artzeko. Morroiak ezin izan deutso eznerik eratzin. Bei zarrak ostikoaz jota pitxarra be ausi egin deutso. Morroiaren txandea artuta, alperrik joan da Imanol kortara. Beiak ostikoaz belaunburuan jota, albora bota dau. Akullua artuta, alperrik ekin deutso gero beia bere esanera ekarten. Eta or asi da bertsolarien txandea, Kepa Imanoli adarra jotzen asita:

Komedi-tokia da / gure okullua,
beiak adarrak dantzan / ta ik akullua;
bigarrenez or abil, / mutil kankallua,
esnez bete eziñik / eure katillua.

Eta Imanolek:

Ni baiño geiago dok / bei zar au indarrez,
ostikoka eiten jok, / gaiñera adarrez;
esnerik ezin kendu / ta i ortik barrez;
pazientzia artzen / ez dok errez errez.

Olantxe luzatu dabe bertsoaldia batak adarra jo eta besteak asarre erantzun, zazpi bertso alkarri botata (Keparen bertso-liburuan seiña baño ez dagoz). IBAIZABAL astekarian beste bertsorik ez dator. Baiña etxeko lau bertsolarietatik Aita ixilik egon bazan be, anai gaztetxuak emon ei eutsan azkena beste bien bertsozko burruka an. Ziri polita azkenengo puntuan bota eutsena:

Kopla ugari baiña, / pitxerra utsien,
esnezko apararik / ez dau arratsien.

Ibaizabal'ek urrengo zenbakian ekarri eban bei zarraren azkena be, Imanolen bertsotan azalduta. Gernikan saldu ei eben, eta eroslea ta saltzailleak pozik itxi ei zituen, beintzat.

Beste bost edo sei olerki geiago atera zituen Imanolek astekari berean: Kepa anaiari (beronen ezkontzea zala-ta), Elizetxea olerkariari, lore usaintsu biri, dama gazte bati, nere maiteari, eta *Bizkaitarren Poza* izenekoa. Guztiz, zortzi bai, gitxienez. Bertso guztiok, ogei urte egin baiño lenagokoak ditu. Andik iru urteren buruan, beste agerralditxo bat ezagutzen jako, 1906n *Aberri* aldizkarian *Arana Sabiñen Gomutan* argitaratu eutsoen olerki gartsuagaz. Abertzaleak askotan abestu ei eben Olerkia, ain zuzen. Ona bertso bat:

Abertzaliak zer ziranik be / guk ezkenkian antziña:
Sabin maiteak argitu arte / illunik gendun adiña.
Zer izango zan gaur arte, Sabin, / geugaz bixi izan
baziña?

Euskadirentzat poztasuna ta / Gaztelarentzat samiña!

(Irakurleak bein baiño geiagotan ikusiko dau, zein aldizkarian idatzi, alan euskal ortografia aldatuta agertuko dala.)

AMERIKETARA

Ameriketarako bidea artu eban Imanolek 1908n, ez dakigu zegaitik, ez dakigu zek eroanda. Euskaldun askoren bidea zan Ameriketarakoa, eta ez da arritzekoa Imanolek be bide on artua. Amalau bat urte egingo zituen andik, luma-lanean antza, ez euskerazko bertsorik eginen, baiña bai langelaren baten etxeko kontuen

eta sartu-urtenen kontua eroaten. Lan-leku on non eban be badakigu: Argentina'ko Hale'n. Ameriketarako ontzia artzeko zala, Kepa anaiak Bilboko *La Gaceta del Norte* egunkarian bertsozko agurra, agur laburra, zuzendu eutson. Baiña badakigu Ameriketako urriñean Imanolek ez ebalu bere euskeraz idazteko lumea ugartuten itxi. Ara joanda zortzi bat urte geroago, 1915n Kepari bialdu eutsazan bertsoak alan diñoskue. Argentinan bere lanari lotuta dago, baiña bai errimiñaz jota be. Biotzak, Iparragirreri beiñola lez, zoaz euskalerrira diñotso Muxikako seme bertsolari oni be. Bertsoak *Euzkadi* egunkarian agertu ziran. Kepak Bilintxen bertso batzuen neurri eta doiñuan kantateko bertsozko erantzuna bialduko deutso, eta berak neurri berean erantzungo deutso Kepari. Agirian dago Indietako bizimoduak ez deusala poz andirik emoten eta andra euskaldun bat artzeko gogoia be ageri jako. Ona berak bertsoetan esanda:

Gaur Indietan eztoz ernetan
urrezko lorarik zelai-landetan.
Emen be, Kepa, ortxe lez dabiz
txakur goseak ortoz ortozik.
Eta katurik
lukainka lokiz ez dau loturik.
Gaur etxauk emen lengo konturik...
Ene abian, ni aspaldian
naiabik uso bat neugandu naian;
baiña euskeraz abesten danik
ezin idoro emen baiña nik!
Au lorra, Kepa!
Ama Euzkadin ixango da-ta,
bialduidak bat onantz egaka!

Amerika itxita, berak Muxikara joatea daukala izan da Muxikatik joakon erantzuna. Alan, benetan-txantzetan, andik sei bat urtera, Euzkadin zan Imanol, eta laster ezkonduko da Urkiolako Santonioen eleizan, eta emen geldituko da betiko andik aurrera.

JAUNGOIKO-ZALE'KO LAN-URTEAK

Imanol ezkonbarri zala, luzaro barik, ez zan euskerarentzat giro ona jarri Bidasoaz onantzako Euskalerrian: Primo de Rivera militarren indarrez agintari jarri eta beingoan asi zan Gaztela'ko erdereaz osteango izkuntzai eutsen gorrotoa ta gatx-eritxia erakusten. Politika usaiñeko ainbat aldizkarik ixildu bearra izan eben. Egunkarietan galerazota gelditu zan euskeraz idaztea. Esate baterako, Kirikiñok *Euzkadin'n* idazten eban euskal-orria mutu gelditu zan iru urtez, 1926ko azken aldera arte. Imanol-ek, orraitio, Muxika'tik ur dagoan Zornotzan aurkitu eban lan-lekua. Non? *Jaungoiko-Zale* Bazkunakoak an euken irarkolan eta aldizkarian. *Jaungoiko-Zale'n* bere gogoia beteko lekua aurkitu dau. Bazkun orretakoakaz gogo bateko egiñik dabil eta eurekaz Ian egingo dau 1927, 1928 eta 1929ko urteetan. Emen darabilen izen-ordea: *Garbi-nai* da. Andik gerora, askotan erabiliko dauan izen-ordea, batez be olerkietan.

Baiña ez da izango olerki utsezkoa *Jaungoiko-Zale'n* aterako dauan lana; itz-lauzkoa, Gazetalari-lana be bai. Batez be, Jaungoiko-Zalekoak, erriz erri eragiten dabean ume-jaien barri emoteko. Olako ume-jai-aldietan askotan aurkitzen da Imanol albistari-lana egiten, zelango jaia egin zan eta zelango sariak nori emon jakozan Aldizkarian aterateko. Eta bein baiño geiagotan, tartean tartean bertsoak sartzen ditu. Olango egun baten barri, Arrasaten bein egin zanaren barri, guztia bertsoetan emon eban. Baiña beste batzuetan tartean sarturiko bertsoakaz eguneko txostena edo albistea jantzi baiño ez dau egingo.

Jaungoiko-Zale aldizkariaren orrietan luzarotxoan agertu ziran Bazkun orrek argitaraturiko liburuen barri zabalteko Imanolek (Garbi-Naik), egin zituen bertso batzuk, liburu bakotxa banan banan izentautu. Garbi-nai'k olerki-mordoa dauka Zornotzako aldizkari orretan argitaratuta. Era guztietako bertsoak dira. Aitatu daiguzan batzuk, Doktor Asuero'ren omenez atera zituenak.

Urte areitan ospetsu egin zan Donostiako osalari ori. Surreko mintz baten ikutu bat egiñez, beste barik osaturik bialtzen zituen etxera erreumaz edo ibilli eziñik ebilzan geixo asko. Baster guztietatik etorkiozan geixoak osasun eske. Portugalera eta Ameriketara joateko be deiak artu zituen. *Jaungoiko-Zale'koak* Eibarraren ume jaien bat euken baten, euren bazkide egin ei eben Asuero ospetsu ori, eta euren aldizkariaren arpi-dedun. Imanol'ek, *Jaungoiko-Zale'*koen izenean umore ederrez eskertu eutsan dana, benetan-txantzetan. Ona bertso batzuk:

Arantz juan naiz onantz etorri,
dabilen leku guztietan
atzean ditu gexoak eta
ez dautse isten baketan.

Besterik ezik, negartituta,
etxuten jakoz oiñetan,
eta Asuerok surretik isasta!
osatzen dituz berbetan!...

Osalaritzan gorantz ein dozu
goren dagan maillara
eta bertatik geure bazkide
Jaungoiko-Zale'n ein zara,

Emen poz-pozik artzen zaituguz
eta etxeko antzera,
surreko batzuk eztenaz artzen
alako baten or gara!

Jaungoiko-Zale'ko Imanolen aldi au ez dogu iñon aitatuta ikusi. *Garbi-Nai* onen bizitzako unadarik ez-ezagunena dala-ta gagoz. Olerki-lanaz gaiñera, antxe asi zan albistari-lana egiten. Eta Jaungoiko-Zale'koakaz etxeko eta osoan bat eginga ibilli zala dirudi.

EUZKAREA ALDIZKARIKO ETA EUZKADI EGUNKARIKO LANA

Primo de Riveraren esku gogorra bigundu danean, zapaldurik eukazan indarrak burua jasoten asi dira. Len ixildurik gelditu ziran Euzkaltzale Bazkunakoak aldizkari barria sortu dabe: *Euzkerea*. Oraingo au, euskeraz eta erderaz. Urrengo urtean asita, aldizkari barri orretan da Imanol, Enbeita'tar Imanol edo E'tar I, Garbi-Nai eta Ibon edo Uribitarte'tar Ibon izenorde barriaz idazten. Euzkerea'n be bertsozko lana eta itz-lauzkoa egingo ditu. Olerki-lana, Jon Bilbao jaunaren Bibliografak (dana ezpada be) jasota dauko: itz-lauzkoa ez. Itz-lauz, kontakizunak, ipuiñak eta abar emoten ditu. Eta Albistari-lanak, Euskal-jaialdien bat Bilbon izan bada, euskerazko itzaldirik edo mixiñorik emon bada, Bilbo edurrak zuritu badau, eta olakoetan, Imanolek egingo dau albistari, eta albistari zeatza ez ezik, txukun idaztera egiten dau. Albisteetan eurretan be olerkariaren sena agertzen jako.

Jaungoiko-Zale'n lez, Euzkeraan be barru-barruko' egiñik agertzen jako. Bere ardurapean dago askotan Aldizkaria bertsoz ornitzzea, beraren edo besteren olerkiz, jakiña. Irugarren eta laugarren urtean sartzean, Aldizkariaren izenean Uribitarte'tar Ibon'ek izenpetuko dau urte barriari eta irakurleari egiten jaken agurra. Bosgarren urteak ez dakar olango agurrik, eta Imanol mutu gelditu ete dan esan geinke. Baiña seigarrenean eta zazpigarrenean (1934-35) olerki bat edo beste Garbi-nai'ren izenpean datoz. Zer dala-ta mutu edo erdi mutu gelditze ori? Zer jazo jako Imanoli? *Euzkadi* egunkarira aldatu dala, eta eguneroko *Euskal-atala* aterateko ardurea eta lanik geiena berari ezarri deutsoela.

EUZKADI EGUNKARIAN

Eta emen, Euzkadi egunkarian emon eban Imanolek bere euskalzaletasun sendoaren neurria, emen erakutsi eban bere lanerako gogoia eta kemena. Emen jarraituko da 1933n asi eta 1936n militarrek sortu euskuen gudate zitaleko egunetara arte.

Guri, urte arein inguruan eguneroko orri albistarietara begiak zabaldu genduezanoi, *Euzkadi* egunkariak ekarren *Euskal-atala* irakurriaz, Uribitarte'tar Ibon izena oso etxeke eta begiko egin jakun. Lenengoko orrialdean etorren *Egumerokuak* eta azkenengo orrialdeko *Gaiak* izenpeko lanak munduan zear eta Euskalerrian jazoten zanaren ia mami guztia eta ikuspegitxoia emoten euskun. Astelenak kendurik (Astelena *Hoja de Lunes*

eritxon orriarentzat zan ezker), gaiñerako egun guztietarako eukan Uribitarte'tar Ibon'ek, Imanolek, zer esan, zer azaldu edo zer jorratu. Ez da gero neke txikia eta egiteko makala be, eguneroko, egunkariko orri bat osoa bete bearra. Gure egunotako euskal-gazetelariak lan orren astunaz jabetzen dirala uste dot. Euskal-gazetalaritzan iñori omenik zor bajako, bat Imanol au dala nik uste. Gaurko gure gazetelariak, ainbeste diru-laguntzaz eta taldean eta alkar-lanean ekinik be, ez dira askotan gauza izan eguneroko euskal-atal ganorazko bat betetako. Ibon, bere lan-gelan bakarrik, bera zan naiko askoren lana egiteko. Astelenetan be ez eban opor andirik edo osorik artuko. Urrengo egunean, asteartean, idazlan luzeago eta beteagoa aterateko astia artuko eban geienetan.

Bakarrago zan, urrean, 1936ko gerratea sortu ta urrengo illabete batzuetan Euskalerrian indarkeripean zatituta, euskal-idazleak sakabanaturik eta noraezean, Imanol nora jo ez eukala aurkitu zanean, euskal-atala ornitzeko gai-rik edo lanik billatzeko. *Gaiak* eritxon bere sailla beteaz gaiñera, or joko eban non-baitera, bere liburutegiko aldizkariaren batera edo, andik bere Euskal-atala zelan edo alan, zer edo zegaz beteta aterateko. Edozer, eguneroko orria bete barik itxi baiño lenago. Urte atako udazken guztian, ez eban burruka makala eroan eguneroko militarren arrazoirik eza edo kristiñautasunik eza edo beste guzurrezko jokabideak salatu eta astintzen. Urrengo urtean, 1937n, talde baten ardurapean edo Agintariaren laguntzaz, *Eguna* euskerazko egunkaria, lenengo euskal-egunkaria, sortuta, gauzak azatz obean sartu ziranean, asko arindu jakon Iboni bere nekea, bai benetan.

AITAMEN OBEA

Enbeita'tar Imanolek (Garbi-nai, Uribitarte'tar Ibon izan genduan onek) egiten jakon baiño aitamene obee merezi dau, bai, euskal-idazleen, olerkari ta gazetelarien maillan. Aspalditik esanda daukagu Enbeitatarren euskal-lana ezaguerazo naiez diarduenai.

Olerkari zan aldetik, ez daigun aitzu Kepa bere anaiak egiten eutsan autormena. Keparentzat Imanol zan Muxikako Urretxindorra. Gazetelari izan zan aldetik, nok aitatu dau, Imanolek *Jaungoiko-Zale'n* egin eban lana? *Euzkerea'n* egiñikoa ez dau ain ez-ezaguna, baiña ez zor jakon aiñean. Gazetalaritzan, 1933tik 1937ra *Euzkadi* egunkariko euskal-atalean emon euskun neurri beteena. Arlo batetik eta bestetik, olerkari lez eta gazetelari lez, etorriko al jako berari zor jakon omena emoteko ordua.

L. AKESOLO



SASI MAIXUKERIAK

DAGOENKO, DAGONEKO

Atzo, Epailaren 8'an, Gotzon Garate'k illabete barru liburu bat argitaratuko ebala ekarri eban *El Diario* izparringiak, erderakadak eta esamolde okerrak azterzen dituana.

Neu be olako zeozer eginda nago. SASI MAIXUKERIAK izena ipiñi neutson sasi-liburua egin eta Zubikarai'tar Augustin'en ardurapean dagoan Kultura Etxe'ra eroan neban orain dala urte batzuk. Sasi-liburua diñot, neuk makiñaz idatzitako orriai azal lodia ipiñitako dalako eta ez irarkolan argitaratua.

Ta sasi liburu onetan diñodanaz gaiñera gai bereko beste idazlan pilloa be egin izan dot eta noizik bein agertzen dira izparringietan.

Gotzon Garate'k eta nik bein baiño geiagotan gai bardiñaz idaztea izan leiteke. Ta, besteenaz jaubetu nazala iñok ez daian esan egiten dot gaurko azalpen au.

Ain zuzen, emen doian idazlan au, berak be azalzen daben gai bardiñaz egiña, norabaitera bialtzeko nengoan eta gaur aringa-aringa ZER'era bialtzen dot, aal dabenean argitaratu daien.

Gotzon Garate'n liburu on nitzat ederra izango dala uste dot. Gaiak asko arduratzen nau.

"Dagoeneko" edo "dagoneko" berbea beti izan dot ezaguna, neure errian entzunda ikasita. (Ondarru'n "daneako" esaten da). Baiña orain dala urte batzuk, idazle gazteak eta telebistan eta irratietan berba egiten ebenak modan sartu ebela konturatu nintzan, guk bateko eun bidar erabilten ebela. Nire ustez, askotan txarto-txarto erabilten eben (eta dabe), premiña barik. Orain-tsu asmautako barrikeri bat zala uste neban berba on asko erabilteko oiturea. Ta jokera orren aurka idazlan bat argitaratu neban Donostia'ko eguneroko baten.

Baiña gero leenagokoen lanak irakurtean konturatu nazanez, orain baiño leen be erabilten eben, gitxiago bada be, berba ori, nire belarrietarako ain txarto dagoan era orretan.

Ara emen aspaldi il ziran idazle batzui artu dautsezdazan esaldiak:

"Luze eretxita ere ba-nago dagueneko." (Otxolua, BERTOLDA ETA BERTOLDIN).

"Eztau onek "daborduko aittan antzik artu gura." (Otxolua, BERTOLDA ETA BERTOLDIN) ("daborduko" berbea "dagoeneko"ren aldakuntza bat dala dirudi).

"Dagoneko jende mordo bat etorria zan." (Uxola, GOIZ ARGÍ, 167 zenbakia).

"...mariñel bertsolana, poesi-ontziz, izkutatzen diyozu, arago ta arago, norabaita.

Nora, ordea?; neskaxa bordariak alperrik galdetzen du, ez bai -dakus dagoneko ia ezer." (Mixelena fraile, ARRAUN TA AMETS).

"...eseri egiten da hango banku batean, dagoeneko eseririk dagoen beste norbaiten aldamenen." (Orain-tsu il dan Koldo Mixelena).

"Dagoeneko emon dautsat ari idazkirik eta asko poztu dala dirudi." (Larrakoetxea, SHAKESPEARE).

Ez diñot esaldi orreitan dagoan "dagoeneko" on txarto dagoanik; neu baiño asko geiago diran idazleai aurka egiten ez naz ausartzen. Baiña nire belarrietarako txarto-txarto dagozala, bai, esango dot. Ta neuri lez beste askoi be txarto eretxiko jakezala esango neuke. Ni Ondarru'koa naz eta nire andrea Ondarrabia'koa berbetaz (Irun'goa jaiotzez). Gipuzkoa'ko kosteak daukan luzeera guztia dago bere erritik nirera. Ta kontu onetan, batera gagoz. Goiko esaldiak eta antzekoak neuri baizen arrotz egiten jakoz berari be. Irratitik edo telebistan "dagoeneko" au modu txarrean esan dala entzuten ba'dau, laster esango daust:

—"An "dagoeneko", Jose Mari."

Baten, paperean jaso be egin eban 17-12-1987'n irratitik entzun ebana, txarto eretxita:

—"Gaur ez.dozu suerterik euki; beste batean izan bearko da, dagueneko."

Eta ez da nire andrea bakarrik, "dagoeneko" berbeagaz esandako esaldiak arrotz egiten jakozana. Orain dala urte bi inguru BERBETAN sail bat egon zan euskal telebistan Altuna'k eta Miren Azkarate'k zuzenduta. Ta "dagoeneko" berbea zala ta eskutitz pilloa artu ebela, esan eban bein. Eskutitzetako itauna auxe ei zan.

"Ea noiz erabilli bear zan "onezkero" ta "dagoeneko" berbak."

Ara emen Altuna'ren erantzuna:

"Onezkero" esaten degu, geure ustezkoa danean, susmoz daukagunean, baiña ala dela ez, dakigunean.

Ta "dagoeneko" esaten degu, esaten deguna egia dela, "dagoeneko" gertatu dela dakigunean.

a) Egizu kontu guraso bat atera dela goizeko zazpi-retan autoz Madril'eruntz. Eta emazteak eta seme-alabak ez dakitela eldu denik. Eta bazkaitarakoan, ordu bietan seme batek esaten du:

—Goizeko zazpi-retan atera da emendik eta arratsaldeko seiterdiak diran ezker, "onezkero" Madril'en izango da.

Ez daki Madril'en denik.

b) Baiña aita ori bera urrengo egunean goizeko zazpi-retan Madril'etik Donosti'ra eguerdiko amabietan irixten bada, seme batek esan lezaioke:

—Aita, "dagoeneko" emen al zera?

Altuna'ren esaldiak neuri be ondo esanak dirala ereizten jataz; baiña azalpenak ez ainbeste.

Edozelan be, ainbeste jende "dagoeneko" noiz erabilli bear dan itauntzen ibilteak, erriari gaur berba egiten dautsenak berba ori illun Iaga dabeela erakusten dau. Leen, erriak ez eukan ezbairik berba orregaz; ba-ekian noiz erabilli bear zan, eta zer esan nai eban.

Orrek, nire ustez "dagoeneko" berbea askotan txarto erabilten dabena, ez dira orretara eldu euren gurasoen euskerari jarraituaz, euren gurasoak baiño geiago ekienari jarraituaz baiño.

Ondoren, "dagoeneko" berbea txarto daroenak edo eroan bear ez leukeanak dira; esaldi bakotzak, ondoren parentesis artean, esaldi bera konponduta dauko, "dagoeneko"ren ordezkorik beste berba bat dabela.

a) "Dagoeneko" Bermeo'ko udalak ez du kalteen neurririk egin."

("Orain arte" Bermeo'ko udalak ez du kalteen neurririk egin.")

b) "Dagoeneko" alkar izketak ezerezean gelditu dira." ("Oraingoz" (por ahora) alkar izketak ezerezean gelditu dira.)

d) Amaiketerdiak ditugu ta "dagoeneko" aldaketa gutxi izango da.

(Amaiketerdiak ditugu ta "onezkero" (ya en adelante) aldaketa gutxi izango da.

e) Zumaia'n egingo du, "dagoeneko" bere apaiz eta euskal lan guzia.

(Zumaia'n egingo du, "aurrerantzean" bere apaiz eta euskal lan guzia.

f) Garaikoetxea, dakizuenez, "dagoeneko" Iruinen bizi da.

(Garaikoetxea, dakizuenez, "orain" Iruinean bizi da.)

g) ...beraren osasun egoera "dagoeneko" larria bada ere...

(...beraren osasun egoera "oraindik" larria bada ere...)

i) Gaur ez dozu suertetik euki; beste batean izan bearko da "dagoeneko".

(Gaur ez dozu suertetik euki; beste batean izan bearko da.)

Ikusten dan lez, besteak "dagoeneko" berbeagaz esan dituen esaldiak egiteko sei berba desbardin artu bear izan ditut ta zazpigarren esaldia, "dagoeneko"ren ordezkorik barik laga, esaldiotan zazpi esanai desbardin arkitu dodazalako.

Bai, irakurten ditudan esaldi askotan "dagoeneko" kendu bearra ikusten dot, baiña bere ordezkorik sartu bearrik ez. Orretariko esaldiak ipiñiko dodaz ondoren:

"Alderdia gaixorik dago" zion bein, goxoki ta maitekor gure Ondarru'ko Zubikarai idazle jatorrak. Nik dagoeneko olakorik ezin errepika dezakedanez, euskal iztegiak dakarren itzik latenetako bat erabilliaz adierazten det nere iritzia." (Egña'tar Gotzon, EL DIARIO VASCO.)

"Bein batean dagoeneko zientzingintzan eta euskalgintzan zebiltzan batzuk il ziran." (Elhuyar, Pedro Etxenike, EL DIARIO VASCO.)

"Jendea, mirari arekin berotuta, oiuka asi zan: "Aduk benetan Profetea, mundura etorri bear duan Profetea." (Jo 5-14). "Eta dagoeneko, Jesus artu eta errege egin nai dute." (Aita Villasante, Jesukristo.)

"Donostia'n dagoeneko amaitu ziran jaiak." (Jaiak amaituta biaramonean irratitik esaten entzun neban.)

"An urutiago donostiarrak dagoenekoziabogara." (Jose Mari Iriondo, irratitik estropadak esaten.)

"Baña, itxon orain: dagoeneko begi-aurrean diegu nere mutiko zaarrena." (Lizardi, itz-lauz.)

Nire ustez premiña barik sartzen diran "dagoeneko" orren zioa, erderazko "ya" beti euskeratu bearra izan leiteke. Ara egun oneitan EL DIARIO VASCO'k ekarri dauan iragarkia, euskeraz eta erderaz:

"Euskadin O.H.O. doan da guztientzat dagoeneko."

"En Euskadi la E.G.B. ya es gratis para todos."

Eta ez dot uste "ya" guztiak euskeratu bearrik dagoeniko. Or, "dagoeneko" gainez dago, ez da bere bearrik; eta beste ezer be ez bere ordezkorik. "Ya" ori euskeratu nai izan dabe, euskerapena osoago, "konpletoago" izateko; baiña orrek illundu egin dau esaldia.

Kontu au olan da nire ustez:

"Dagoeneko" berbea, zerbait uste dan baiña len egiten danean erabilten da; egin, sentidu edo edozer.

Altuna'ren esaldia be olakoxea da. Uste eben baiña len agertu jaken aita.

Orain, neure ustez "dagoeneko" ondo dagozanak doaz.

GAROA'n ume bat jaio zaneke barria emoten dau Txomin Agirre'k:

—Ba'degu ba.

—Jaungoikoari eskerrak. Eta nolakoa da?

—Zuri, eder, galanta: bere aita berbera dirudi.

—Dagoneko? Zuek emakumeok bereala artzen diozute umeai norbaiten itxura.

"Nire mutil koskor au daborduko (au, "dagoeneko"-ren aldakuntza bat da, bariantea) asi da beronen tentelkerijaren ezaugarri bereziak emoten." (Otxolua, BERTOLDA ETA BERTOLDIN.)

Olantxe, azkenengo esaldi biotan lez ikasi dogu "dagoeneko" erabilten eta ez beste orreitan lez. Ara esaldi bi, neuk asmautakoak:

"Uda guztirako etorri gara Benidorm'era, baiña ni dagoeneko aspertuta nago, naita astebete baiña izan ez etorri giñala."

"Illabete da oraindik gure alabeak kitarrea eskuetan artu ebala ta dagoeneko ikasi dau erriaren aurrean bakarrik joteko ainbat."

Aldresbeskeria asko entzuten da gaur auzitara atara dodan berbeagaz baiña ondoren datorrenaren antzekorik gitxi.

"Dagoeneko berandu da."

Ori, urari sua deitzea lez da, gauari eguna esatea, euriari eguzkia izena emotea. Lenengo, goiz dala esaten dau (guk alan artzen dogu) eta gero, berandu dala.

ARANA GOIRI SABIN

Urte bi dirala, San Anton'go Elizan, Arana ta Goiritar Sabiñen 82 urteurrena ospatzean, berba oneik esan nebazan. Gaur, gaurkoak letz dira, nire ustez beñopein, eta orregaitik, "Zer" era bialdu dodaz.

Arana Goiri Sabiñen 82'garren urteurrena ospatzean, abesti eder eder bat gogoratzen dot: "Eliza da, Eliza, eriko biotza".

Sabiñek, bere erria asko maite eban, benetan, geiagoezin, baña... erri kristaua, kristautsunean bere sustraiak sakonduten ebazan erria.

Gaurko egunotan, euskal idazlari batzuk, politiko ta sasi-jakintsu batzuk, kristau-sustrai orreik, euskal guzurrezko sustraiak dirala diñoe. Egiatzko euskal sustraiak, Arri-aroan, Paleolitikoan Santimamiñen egongo ziran.

Orregaitik, sasi-azal on gure erritik kendu egin bear da. Adibidez, begiratu oraingo umebarrien izenak: *gitxi-gitxitan* santuen izenak, Andra Mariaren izenak; askotan, izadi edo naturaletzako izenak: "Eguzki, Itxaso, Zigor, Aizea, Arkaitz, Aritz... Eta jai edo festa garrantzitsuetan bere,... Udako solstizio, neguko solstizio, eta abar.

Sasi-jakintsu orren ustez, oraiñarte, euskal idazle eta euren idazti edo liburuak, prailleen eta abadeen liburuak ziran, geienetan edo laiko klerikarrenak, eta orregaitik, ezetsi dabez, balio barik dira. Oraingoak, ostera, geien geienek laikoenak dira ta laiko ezkertienak, jakiña!

Idazlari ausarta ta lotsabako batzuk, euren lizunkeri aundienak zeatz zeatz azalduten, deskribitzen dabez eta orrelan, Parnasoko gaillurrera eldu dirala uste dabe.

Orain biziko ba litz Sabiñek, ze gogor, ze indarrez itz egingo leuken, okertzaille, sasi-jakintsu orren aurka!

Bear ba da, alderdi konfesionalik ez eban gura izango Sabiñek orain be; abertzale sinisgabeak errespetatuko ebazan; baña burruka egingo eban sinismenaren eta siñistedunen aurka dabiltzan sasi abertzaleen kontra,

eta kristau fedea, bere kristau fede, sakon eta bizia autortuko, konfesatuko, erakutsiko eban argi ta garbi.

Euskalerrria edo Euskadi, munduko edesti edo istoriyan, kristautasunaren eskutik sartu zan. Nai ta nai ez, lenengo idatziak, lenengo dokumentuak, Elizaren dokumentuak izan ziran. Erri asko, elizateak edo anteiglesiak deituten ziran, eta Eleizako aurrean edo Eleizako atarian erriko batzarra batzen zan. Zelan ulertu Bizkai-ko Edestia, Foruen edestia, ziñegilleen eliza barik, juradera-eliza barik? Zelan ezagutu Euskalerrriko oiturak, ezkontzetan, illetan, lureko ta itxasoko lanetan, sendi edo familietan... kristautasun barik?

Euskadi kristautasun barik eta kristautasunaren aurka, Sabiñerentzat guztiz asmau-eziña, ulertu-eziña izango zan. Orregaitik esan eban: "Euzkadi aske ta jainkobege baño len, Euzkadi mirabe baña kristaua gurago dot".

Gaur, kristau abertzale askok, euren fedea barru barruan eskutatzen dabe, kanpoan ez dabe autortzen, ez erakusten... Akonplejatuak, koldartuak, bildurriak dira... integristak, klerikalak, atzeratuak deitu ez dagitsen. Besteok, sinisbageok, ostera, ez dira bildurriak, ausartak baño, arrokeri aundiz berba egiten eta idazten dabe eta leku guztietan... burua agertzen dabe.

Kristau guda bat ez dogu nai! Iñoiz be ez! Kruzada bat ez dogu nai, paperetan bere ez! Baña gure fedea autortu, apal apalik baña argi ta garbi; gure erri maitiaren kristautasuna gorde ta zaindu; gure jatorrizko edesti edo istoria argitu, ta sasi-istorigilleen mozorroak kendu; gure kristau oiturak, euskal ondratasuna, garbitasuna, leialtasuna, ezkontzaren batasuna ta biziaren errespetoa, bizi guztiaren errespetoa, jaiobakoetatik erioztaraño, bizia gorde ta defenditu adorez, gogor, indar guztiakaz, leku guztietan, *ori bai! Ori beti!* Orrelan gure Sabin maitia benetan ospatu ta goralduko dogu ta bere ondarea zintzo-zintzo gordeko dogu.

A. OLABARRIA

JAIME KEREXETA, OLERKARI

Gaur orozgaiñ ez da errez epai arteza, barne-lera bagea, olerkari batez emotea; kide jakunean goregi jarten dogu eta begiko ez jakunean, azpiko trokaraiño isuri. Ez dakigu neurrizko izaten, bakotxari berea emonez. Ez dakigu egiazko kritikalarri izaten, landak lorrinzen aldia xautzen baiño.

Zenbaitek goratu izan dabe Keraxeta'ren olerkia, Andima'k, Mitxelena'k, Aurre-Apraz'ek, nik... Ajangiz'ko olerkari sutsuak onela: "Lauaxeta naigabetuari zoritxar gorrienak esku samurretatik ankerkiro bere lirea urratu eutsen ezkerro, gure artean ez dogu izan au, elorriotar au, bezin olerkari jatorrik. Onen olerki bakoitza irakurri-ala egaz egiten dau gogoak ludiz bestaldeko zelai ezaungeetara ta kaden arrotz batek laztantzen dau leunkirot biotza".

Bizi-tokiak asko esan gura dau, nik uste, olerkigintzarako. Elorrio, berebiziko lekua, Anboto, Udalaiz, Intxorta ta abar, babesle ditula, olerkitsu da benetan, giza-adimenari ta biotzari dardar eragiten dautsona. Solo, landa ta mendixkaz eder; baserriak or-emen zuri-gorri; zugazti ta auzunak biotz betegarri; aundikien egoitza bikaiñez aberats uria. Toki aparta poesirako.

Ementxe jaio zan J. Kerexeta, 1918'ko garillaren 31'an, Iñaki Deunaren Egunean. Goi-zantzoak dei egiñik, Arratiko Gaztelu-Elexabeitia'ko Apaizgaitegi Txikian asi zan ikasten eleiz-karrera egiteko. Gerra amaitu zanean, 1939'an, Komillas'era jo eban ikasteak jarraitzeko. Burgos'en "Schola Cantorum" zuzendu eban, Sevilla'n be organu-jotzaille izanik.

Pontevedra probintziko Tuy'ra aldatu ta an katedralean tan egiñik, organista ta Seminarioko musika erakusle izan zan 1945'garreanean; bertan amaitu eban eleiz-karrera eta bertan katedraleko organistatza egin euskun 1947'tik 1952'era. Ere berean, eta urte oneitan, Tuy'ko eleiz-barrutiko idazkari ta artxibu jagole izan zan.

Andik Euskalerrira etorri ta Urkiola'n daukagu organu-jotzaille 1952-1956 bitartean. Ondoren Elorrio'ko San Agustin eleizan arima-zain 1956-1960. Eta 1960'tik 1961'ra Iurreta'ko eleizan laguntzaille, eta arrezkerro Elorrio'ko parrokiari dabi arima-zaintza.

Euskal arloari emona bizi da oso-osoan. Euskaltzainia. Asko be asko idatzi dau euskeraz. Goikoak alan be

ozt-oztan artzen dabe aintzat, min gaiztoak diñoenez bizkaieraz eta atxe barik idazten daualako; au pekatu larria bai dozu, ta olako pekatarririk ez da aintzagarri goitarrentzat.

Aldizkari oneitan datoz bere lanak: "Euzko-Gogoa", "Jesus'en Biotzaren Deya", "Egan", "Anaitasuna", "Oler-ti", "Agur", BAP, Buenos Aires'ko "Boletin... de Estudios Vascos"...

Aspertu barik idatzi dau euskeraz eta erderaz. Ona euskerazkoak: "Orbelak" (1958), "Bitargi" (1960), "Jesukristo gure Jaunaren Barri ona" (1960-61), "Apostoluen Egiñak" (1961), "Eguneroko Meza" (1963), "Gogarteak" (1963), "Didaje eta Apostoluen Siniskitza" (1965), "Apostoluen Egiñak eta Idazkiak" (1965), "Alkartasun Barriko Itzak eta Gaiak" (1966), "Argi-bide txikia" (1965), "Jesukristo gure Jaunaren Barri Ona, gipuzkeraz" (1965), "Jesukristo'ren Barri Ona" (1966), "Itun Berria", gipuzkeraz (1967), "Salmutegia" (1967), "Salmudia", gipuzkeraz (1968), "Umeen Biblia", gipuzkeraz (1969), "Gure Salbaziño Egintza" (1972), "Alkartasun Barria" (1972), "Jesukristo'ren Barri ona", euskeraz ta erderaz (1972), "Ebanjelio Alkartuak" (1973), "Kristau-Ikasbidea" (1974), "Eliz-guraso Apostolikuak" (1975), "Euskal-Biblia", bizkaieraz (1976), "Iparragirre'ren Bizitza ta lanak", itzulpena (1976), eta abar.

Erderaz: "Diccionario Onomástico y Heráldico Vasco", zazpi ale (1970) eta "Casas solares de Elorrio" (1987), eta abar.

Olerkari.—Nik sarri esana: Euskal idazleetan gitxi dira beingoren baten poesi-lanak osotu ez dituenak. Kerexeta'k lan txiki batzuk ez-eze, iru liburu be, olerki bikaiñez beteak, argitaratu dabezana dogu. Barrua nasaitzeko lez egin oi dira sarri lan pitiñok.

Olerkia —nok ukatu?— ertz askotatik ikusi geinke. Eguzkiak berak be, laiño artean dabillenean, kolore askotako izpi ta printzak bialtzen datiskuz; bardintsu, esan bear, olerki zati batek. Saia zaitez zeu zeuretara. Olerkiari, egi-egiaz olerkia bada, barru ta azal ederra dario borborka, eta nik jaso daiket eder on neure experientziaren zerbait lez, edo-ta damostan atsegiñaren dardara lez.

Zuurtasuna dakarsku onek gogora, zenbaitek gaur gura leuken bezela: itz gitxi, baiña esangura ugari. Orra doa gaur-eguneko poesia, geienbat beintzat. Zirriborro batzuk eta or margolari jaioa. Bertso gitxiko aapaldi batzuk, eta or olerki biribilla, biotz-zauskadak aurrez sortzen dituna: gogai eta pentsamenturik asko ernerazten tauki, une ta begi-zizta baten.

Kerexeta'ren olerkietan olako zerbait dagola, diño. Egia ete da? Beronen bertso-lanak oso dituzu laburrak, esanguraz beteak asko. "Olerkari uts dogu Kerexeta —diño Aurre-Aprai'ek—. Olerkari... Irakurri baiño ez bait dago "Ego-aize". Gure basoetako olerkiaren kaden gozatsu guztia bildu bait dau, samurkiro ta labur, olerkitxu dotore ontan". Begoz emen lau estrofa sail ortik eratsiak:

Udagoiez. Ego-aizea
dogu aizeetan jabe:
giro epelez, berantz datoz
orbelak ardura gabe.

Argiaren begian doaz
gure mutillak txistuka;
idien adoregarriztat
burdi utsaren kirrinka.

Urrez iratzak Ego-aizez;
ez da faltauko naparra;
ogiaren eske aausika
egun-erdian txakurra.

Egoiak dauan euri-miñaz
laiñoa dator gabeen:
agur dagiskun arratsean
illun-aldean euria.

K. Mitxelena'k be goraldtu eban bein, "Egan" aldizkarian, Kerexeta'ren olerki-lan a. "Itxura apain baiño apaiñagoan dator —diño—. Era ikasian eta jakintsura, erri-poesiaren bideetara-jo du itxuraz Kerexeta-k eta zentzuen bitartez atzematen duena da nolazpait ere biotzeko izkutuen argibide eta ezaugarri. Elkarren ondoan datoz irudi biziak, esaldi laburretan, ur-egiko lizar naiz makal lerdenen andanak bezala". Ona "Gabeko bederatzietan" deritxona, olako zerbait txastatu daizun.

Nire etxeko leioan,
gabeko isilletan,
aize bigun artean,
biotza amesetan!

Ezer ez da entzuten!
bildotsen be erlatza
da bakarrik gabeko
eresi-lorratza.

Ozkarbian izarrak,
mendi-goian zugatzak.

Illargi betearen
zidarrez ditziz
aitz-gaiñak zuriz dagoz,
oro jantzi zuriz.

Laiño meea menditik
goi-gorantz igo da:
mozoloa torretik
mendirantz joan da.

Ez dot bear lagunik
gogartzeko bakarrik.

Bakardiak artu nau
altzoan isilka,
eta isillak gorde nau
ostuka-ostuka.

Lan txiki ariñak ditu atsegin Kerexeta'k, eta onexek dira ain zuzen be, zerbait ba'diñoskue, pozetan irakurten doguzanak. Biztu daiala zerbait gure biotz muiñean, eta gure olerkariarenak gozotasun berezia izten dauskue.

Zortziko txikitan (7/6) dagoz geien-geienak. Errez abestuteko moduan. "Poesi jatorra, gaurkoa, barrukoia, Bere-berea, lirika-saillekoa; bizitasunez, irudiz eta biotz-zirra leunez gantzutua; arin, zuri ta argi diñosku esan nai dauskuna" idatzi neban orain urte batzuk dirala.

AITA ONAINDIA



BALENTIN BERRIO-OTXOA (III)

JAUNGOIKOAREN DEIA. GOIRIA

Gazte alaia zan Balentin; bein bere zeregiñak bete ezkerro pelota-tokian egongo zan bere aidekoakaz jolasen. Monjak maite-maite eben euren monagillotxua; berak Balentiñek be maite-maite ebazan. 12 urte ebazala egin eban lenengo jaunartzea ta aurrerantzean sarri-sarri urreratzen zan Gure Jauna artzera.

Aita Mendoza zan aldi aretan Santa Anako Kapellaua. Balentiñek erazoten eutsan egunero meza ta euren arteko berbaldietan Txina ta Tonkingo mixiño-gaiak aitatuten ebezan. Pozarren entzuten eutsozan Balentiñek Kapellau jaunari. Berak be mixiolari izan gura eban, baiña bere ametsak orduan ezin bete eikeazala-ta abade izatea erabagi eban. Ordurako eskolan ainbat aurreratu eban; erderazko gramatika ikasita eukan Konbenio bere maxuagaz, dotriña Jose Juan Etxebarria abadeak irakasten eutsan Iñazio Burgina abadeagaz autorzen zan.

Aita Mendozak Balentiñen gurari ta asmoak jakin ebazanean, latin irakasten asi iakon. Egunero batzen ziran konbentuko gela estu-illunean. Aurrerapen andiak egin ebazan Balentiñek; sakristia ta eliza ta arotzeriko lanak bukatuta, liburuen gaiñean egoan beti. Igandetan atsedena artzen eban Elorrio ta inguruko erri ta auzoetara urtenik. Adiskide kutun-kutun bat eukan: Iñazio Borda. Batera ikasi eben latin eta Borda Jaunak iñoanez, eskolako zeregiñak eginda, bere etxera joaten zan aitari arotzerian laguntzeko. Igande-arratsaldetan-da Balentinen etxean batzen ziran biak.

Udaldiko opor-egunetan Antzuola, Elosu ta Geta-riara ioaten zan bere senideekana. Aurrekua be egin eban bein jaietan Elosun. Bardin Berrion be.

BERE GURARIA AITARI AGERTZEN DAUTSO

15 urtedun zan Balentin. Gizontxu eginda egoan, batez be sentzun aundikoa.

Isidro pozarren egoan bere semea aziz, gizonduz eta indarrak artzen ioiala-ta. Laguntza andia egingo eban arotzerian aurrerantzean. Lana ugarituz ioiakon Isidrori. Ez ziran Balentiñen asmoak orreik. Isidrok ezer ez ekian.

Egun baten orraitño argaltasuna indar biurtuta Seminarioa ioan gura ebala esan eutsan aitari. Arrituta ta pentsakor geratu zan Isidro semearen urtera onegaz. Balentin ba'ioako, lanak nork egin? Beste semerik ez eukan Juan Mari illa bait-zan.

Ondiño beintzat gurari on atzeratu egin bearko ebala erantzun eutsan aitak. Balentiñek txitik be ez. Bere gurasoai laguntzen geratuko da arik eta Jaunak gauzak zuzendu arte.

Eta Balentin etxean geratu zan iru urtetan lanean arotzerian aitari laguntzen. Liburuak ostera ez ebazan itxi, ez ebazan eskegi; bitarteetan-da bere latin ikasten ekian. Santa Anako monja ta Aita Mendozagaz sarri egoten zan; oneik asko adoretzen eben bere asmo ta gurariak aurrera eroan egiazan.

1845'garren urtea. Balentiñek 18 urte daukoz eta ondiño ez dau lortu bere gurasoen baimena. Jauna bere aide egoan. Justo Bengoa apaizaren etxean egoan bein Balentin bere aita ta beste bategaz lanean.

Balentin —diñotso Bengoak— apaiz egingo ete az'ba?

Bai jauna —erantzun eutsan Balentiñek apal-apal.

Eta bat-batean Isidrogana urreratuta bat-diñotso: "Isidro: Balentiñek apaiz izan gura dauan ezkerro lagundu egoizu".

Balentiñen eskariak azkenez bere gurasoen baimena lortu eben. Balentin zoriontsu zan. Orduan ezin ioan zeitekean Okañara. Logroñoko Seminarioa ioango da lenengo ta gero Okañara Jaunaren guraria ba'da. Eta zergaitik Logroñora? Zergaitik ain urrin? Bizkaia, Gipuzkoa ta Araba Kalahorrako Obispaduaeren barruan egozan eta Logroñon egoan Seminarioa. Ta Logroñora ioan zan Balentin.

LOGROÑOKO SEMINARIOAN

1845'gko. urrillaren 27'n eldu zan Balentin Logroñora. 18 urte eukazan. Egun onen zai egon zan aspaldi baten; azkenez eldu zan. Etxea, gurasoak, arrebea, senideak, adiskideak, erria, dana itxi eban Jaungoikoari jarraitzearen. Iñork azaldu ezin leiken barruko beroa itxi eban, baiña biotzeko utsune au Seminarioko famili andiaz beteko dau. Zoriontsu zan Balentin. Aita Mendozagaz ikasi eban latiña askotarako izan iakon: Filosofian sartu eben. Ikasle ona zan? Notarik onenak lortzen ebazan beti ta danean. Liburu-artean ibilli zan arren otoitza ta penitentzia ez ebazan itxi. Gogor artzen eban bere gorputza zigorrakaz. Seminarioa eldutakoan iñok gura ez eban gela illun-otz bat artu eban. Garizuman eta Aste Santuan batez be penitenti ta barau andiak egiten ebazan. Balentin ikaslearen ildura, ikaste, apaltasun eta jaungoikotasunak oiñarri sendoak eukezan; oiñarriok atarako dabe aurrera arrisku ta ezbear guztietan.

Maitasun eta oneraspen aundia eutsazan Ama Birjiñari; bere Amatzat artu eban. Maitasun au bere idazkietan agertzen dau. Bere amatxori, Damaso Amigori ta Soreti egindako idazkiak Mariaganako maitasuna darie. Bere idazki danak edo geienak aitatuten dabe Ama Birjiña. Idazki gitxi egin ebazan Logroñon izan zan bitartean. Alan be nozean bein idazten eutsen bere gurasoai. Eurekanako maitasuna ta begirunea agertzen dabe danak.

Opor-aldietan Elorriora ioaten zan uda igarotera. Egunik geienak etxean egiazan, bere aitari arotzerian laguntzen. Antzuola, Getaria, Durango ta Elosura be ioan-etorriak egiten ebazan. Elorriion egunero ioaten zan Santa Anako monjatuakaz berba egitera.

Aita Mendoza ta apaiz jaunak ziran bere lagunik onenak.

Danak santutzat euken. Adibide ona emoten eban beti ta alde guztietan.

Bidea zabalik eukan eta andik lau illabetera apaiz eginda egongo zan.

Zelako lana eukan Balentinek Seminarioan Irigoien Obispo Jaunak Zuzendari-Maxu egin ebanean? Seminaristai Kistar-Ikasbidea irakatsi bear eutsen; asterpenak eta autortzak zelan egin irakatsi; ikasten eta iolas-tuten eta lo egozan bitartean zaindu; txikiak ikaskaiak artu ta abar. Lan asko leporatu iakon baiña pozarren egoan lan onegaz Seminarioa ordaintzen eban-da.

APAIZ EGITEN DA KALAHORRAN

Eldu zan azkenen egun aundia: egun onetan beteko ziran bere ametsak. 1851'gko. bagillaren 14. Balentin apaiz zan. Poz aundia egiz beretzat. Kalahorran egin zan apaiz. Andik Logroñora ioan zan lenengo meza esateko. Uri onetako Agustindar monjetan esan eban. Eta zergaitik ez Elorriion? Bere gurasoai egin eutsen idazkian au diño: "Nik lenengo mezea or esatea gura izango dozue zuek, baiña etxat atsegin; beste zergaiti batzuk itxita, batzuk minduta geratu leitekez batzui bai ta eurei deirik etxakela eginda;" ganera Pedro Jaunak emen esatea gura izango dau; Agustindar Monjetan esan bear nebala ta itzaldia berak egingo ebala esanda nauko-ta."

Idazki bertso oneikaz amaitzen dau:

"Nere amatxo bigunak
neurtuko du bai denpora,
bere biotzeko kutunak
kasulla bota artian lepora."

Beragaz batera mezakotu zan Iñazio Borda bere adiskide kutuna be.

Logroñon meza esanda Elorriora ioan zan Basilio bere lagunagaz.

Elorriion egon zan bitartean Santa Anako elizatzxoan esan oi eban sarri mezea. Goiz-goiz jagiten zan. Goizeko lauretarako aldarantz zan luzeroko gertakizuna egiteko.

Bost misterioeko errosarioa errezatu barik ez eban urtengo elizatik.

Apaiz santu bat zirudian antxiñako monjatzxuen sakristauak. Monjatzxuen poza euren lengo sakristau txikia apaiz eginda ta meza esaten euren elizan ikustean!

Zelako lana egin eban gure errietan ez dakigu. Bateo bat egin eban Axpen 1851'gko. agustuaren 19'n bertako abade jaunaren baimenagaz. Elorriion itzaldi batzuk egin ebazan. Beste barririk ez dakigu, baiña geldirik ez zan egongo.

Parroki-ardurarik ez eban euki, ez eban gura-ta; bere ametsak beste batzuk ziran: domekar pralle izan; gainera Logroñoko Seminarioan emon ebazan abadetzako iru urteak. Lan onetzaz baiña beste zertxobait esan bear da.

Balentinek Seminarioan eta urian bertan egin eban lana esatea ez da gauza erreza. Ordurarte beti santutasun-bidetik ibilli ba'zan, egaz egin eban gero.

Iru urtetako bere lana bitarikoia izan zan: bere ari-ma ta adimena sendotu ta aberastu ta Seminaristak eratu ta zuzendu. Iru urte oneitan bukatu ebazan bere ikasketak. Egun osoan lan gogorrean ekin arren gabaz otoitz luzea egiteko astia artzen eban, baita Teologia ikasteko be.

Gazteen adiskide zan; areriorik ezeukan iñon. Onak ziranak maite ebazan eta eurek be beragaz egon gura izaten eben; oker-zamarrak ziranak barriz itzal-lots aundia eutsoen.

Onoimen aundidun apaiza izan zan, diño bere aideko batek, bere ixiltasunen, autortegian, meza esatean, Jesus Sakramentuaren aurrean egoanean; bere ibilleran, begirakunean eta berba egitean aingeru bat zirudian.

Seminarioko Nagusi-Zuzendari zan Infante Jaunak au sean oi eutsen Bizkaiko seminaristai: "Zuen artean bat bakarrik da ona; onegaz pozik nago. Olantxe onen antzekoak ixan bear ziñake guztiok."

Bere jaungoikoitasuna iñoz ez eban ukatzen —diño Juan Erraimun Urrexolak— Jaungoikozaletasun au meza-orduan ikusten zan argien; goratuta lez eta igikunik egiteke ta burua aurreruntz makurtuta ikusten zan.

Beste apaiz batek diño: "Apaiz eginda gero ezagutu neban Seminarioan eta lendik santua ba'zan gero aldarretik kanpora aingeru bat eta aldarantz serapin bat zan.

OROITZAK (II)

BIZKAI'KO EREDU BI

Nire bizimodurik geiena izan da, eta ez naz inoiz damutu, Bizkaia'n.

Emen be eredu ederrak, bikaiñak ikusi dodaz, etxe-ko andren artean.

Naikoa da euskalduna izatea, odol eta izaera bat daukagulako.

Gogaik ez eragitearren, eredu on bat, erakusgarria, agertuko dot eta gero beste bat, ez ain ona, baiña onurea aterateko lako bai.

Baiña guztien gaiñetik, ez aiztu, Euskalerrian andren laguntza garrantzitsua izan dala eta laguntza on gure errialdean gorengo maillan dagoala.

JARRAIBIDEA

Gautegizko Arteagan egon naz ogeitabi urtean, ta bertako eta Ereño'ko 160 basetxe ta kaleko etxetan sartu naz, aregaitik edo onegaitik.

Bein barriketaldi bat eginda, etxe bateko andreak' erakutsi eustan bertako kortea. Etxean iru emakume ziran bakarrik.

Ama ta bi neska. Gizona Ameriketako Iparraldean, sari edo dolar ederrak irabazten.

Arro, amak eroan ninduan kortara, eta erakutsi eustan ango ikuspegi ederra, bikaiña, ikusgarria.

Amabost IZKO edo ZEKOR, erreskadan aundienetarik berantz.

Andienak eukazan 60 erralde, besteak andi bera, neurri danetakoak.

Ikaratuteko gauza. Iru andra aulen artean, abere areik egunero ondo konpontzea.

Ikusgarria ta ikaragarria.

Gizonaren SARIORDEAZ emakume areik, ondo baiño obeto bizi leiketezenak, baiña ez, euskaldunak ziran eta bere senarraren eta aitaren izerdia, an Ameriketan, ez eben MIAZTU gura.

Astelenetan Gernikara joan eta egon eikean akeit-etxean edo zineman oso polito, baiña ez.

Euren aldetik gura eben etxea ondu, euren izerdia-kin jan ta bizimodu bear dan bezelakoa eroan.

Ez ziran gelditzen lanean, baiña bai ugari eskudirua euki edonora joateko ta lazai bizitzeko.

Orrelan jokatu ezkerro, bai etxea, bai auzoa, ta bai erria goraldu leitekez.

Ez dago beste biderik gure Etxeak ta Gure Euskalerria Goraño EROATEKO, eukiteko, leenago bezela, lenengo maillan aurkitzeko.

Ez dago beste biderik nai ba'dogu tontorrean egon.

* * *

LAGUNA

Bigarren eredia ez ain ONURAGARRIA, baiña bai erakusgarria. Gernika inguruan badakigu leen ta orain itsas gizon ugari dirala.

Olako bat, denbora luzean igaro ta gero etxeratu zan.

Pozik eldu zan etxera andrea ta seme-alabak ikusteko. Bere sarrera oso pozik ekusi eben danak.

Egun batzuk igaro ta gero, andreari itaun bat egin eutson zelako diru pilloa euken jakin-guran.

Emazteak irribarre eginda, artu besotik gizona eta "karkabara" eroan eban. Atzamarragaz izentau eta esan eutson: Zuk bialduko dirutxoak ortik bera joan dira.

Beste bat izan balitz, salaparta aundia agertuko eban, baiña gure gizonak ez eban agertu olakorik.

Bekoki illuna ipiñi ta esan eutson:

Ez noa geiago itsasora. Emen geuko naz.

Zuk ere nigaz batera, lana gogor egin bear ko dozu.

Ta geiago barik, andik aurrera, lana egin bear izan eban gure andra lotsabakoak.

Andik urte batzutara, etxe polit barri bat egin eben urrean.

Ludian danetako jentea egongo ez balitz, ez litzake izango LUDIA.

IPUIN BAT

Aldi baten, gure YOSU ta Kepa joan ziran txangur bat egitera.

Egun oso beroa zan.

Kilometro batzuk eginda, izerditan yoyazan gure bikotea eta aurkitu eben, bide ertzean iturri bat. Bertan egoan neska bat pitxar bategaz, baiña pitxar on oso loaia egoan.

Gure Yosus berarengana eldu zanean, ezi aundiagaz, ur apur bat eskatu-eutson.

Neskatoak, pozik emon eutsen euren estarriko egarria kentzeko.

Yosuk edanda gero, esan eutson neskatillari:

Zuk eskatu Jaunari, senar on bat.

Gure txangurzaleak, euren bidea jarraitu eben pozik.

Andik bost edo sei kilometrora, beste iturri bat topatu eben, len bezela bide-ondoan.

Beste neska bat egoan bertantxe, pitxar garbi bategaz. Ariñago moduan, JOSU'k diñotso: Mezedez, emongo dauskuzu ur apur bat.

Neskatoak poz-pozik emon ondoren, JOSU'k diñotso:

ZUK ESKATU JAUNARI, SENAR TXAR BAT.

Orduan, gure Kepa, arritu ta gelditu zan eta esan eutson bere lagunari:

Zer da ori: Bateri esan dutsozu, SENAR ON BAT ESKATZEKO JAUNARI, eta besteari SENAR TXARRA ESKATZEKO.

Zelan da on Jauna? Ez dot ulertzen.

JOSU'ren erantzuna: Ai, Kepa, Kepa, zuk ez dakizu zelakoa dan munduko bizimodua.

Neskato loi edo alper batek bear dau senar on bat, etxeko gorabera, ondo, zuzen eroateko.

Bestaldera, neska garbi ta langille batek, naita gizon alperra euki, andra orrek, artez eronago dau bere etxea.

Sarritan erabilli dot ikastaroan ipuin au, uste guztietako errazoiak izaten dira, baiña danak, barreka asten dira.

ETXEBERRI, TAR ISIDOR

MUAMMAR EL GADDAFI

LIBIAK 3.400.000 BIZTANLE DITU ETA 1.759.540 KILOMETRO LAUKI. PETROLEO ASKODUN ERRIA ETA BATAZ-BESTE BIZTANLE BAKOITZAREN IRABAZIA 10.000 DOLARREKOA DA URTEERRO (MILLOI TERDI PEZTA). BERAZ, ERRI ABERATSA ETA ORREGAITIK EDO, TRIPOLI DERITXON URI NAGOSIAN, EDOZEIÑEK DAU "PEUGEOT" EDO "TOYOTA" BAT.

* * *

Petroleoren berakada aundi onetan, nekazaritzan ipiñi ditue euren begiak. Esate baterako, Zirenaika deritxon aldean, gari-solo izugarrien artean, eundaka ekterea sagarrez bete ditue. Bigarren urte onetan asita Golden eta Starking sagar ederrak jasoten dabez.

1980'garren urtean petroliotik 24.000 milloi dolar atera ebezan; orain, barriz, 8.000'ra jatsita dagoz eta orixe izan da nekazaritzari begiratzeko arrazoibidea.

Toki orreitan 20 egazkin bereizi daukez ongariak eta momorroak ilteko darabiltzen gaiak zabaltzeko.

Tripoli inguruan beste orrenbeste gertatzen ari da. Baserriak jasoten dabez: etxea, traktore bat, bei bi eta irurogei ardi eskeintzen dautsez utsean baserritar izan nai dabenai. Orreikaz batera 25'tetik 50'etara ekterea. Fin jokatu ezker 20.000 dolar ateratzen dabez; baiña geienak, 12.500'etan gelditzen dira. Lanik egiten ez daenari irugarren urtean guztiak kentzen dautsoez baserritar barria sartzeko.

* * *

Orain 16 urte El Gaddafi koronelak Libia'ren aginpidea artu ebanean, erri osoa arez betetako eremu bat besterik ez zan; gaur, barriz, zearo aberastatuta dagoz petroleoari eskerrak... naiz-eta gauza asko alperrik galdu eskuartean.

Jendeak esker onez ikusten dau El Gaddafi'ren garaiako aldaketa izugarri au.

* * *

Ara aldaketa batzuk:

Medikuntza-arloan, besteetan lez, aldaketea aundia izan da. 1970'garren urtean Libia osoan 40 (berrogei)

sendagille egozan. Gaur 2.000'tik gora dira. Ori ez da guztia: 1984'an eraikitako Ikastola Nagusitik 200 (berreun) sendagille aterako dira urte oro. Ikastola on Bengkazi'ko urian dago eta ba-dauke erri orretan atzerapenak jotako umeentzat berebiziko lekua, aurrerapenez bete. Sendagille orreitatik, lauren bat, emakumeak dira. Berau be, arabeen arteko errietan, ez da gero aurrerapen makala...

* * *

Beste arlo batean, ikaragarritzko ekintza daroe aurreruntz, Libia osoa urez asetzeko, barru-barrutik kostalderaiño: eremutik Tripoli'ra. Lan orretarako tubo izugarriak, zazpi metro ta erdi luzean eta tau metro diametroan, egiten dabez 1.200 surkoreano langillek. Tubo orreik egiteko lantegiak, ertzeetako osarribarik, bi kilometro ta erdi dauz luze eta kilometro bat zabal. Asmakizuna amerikarrena da, zuzendaritza australiako batek daroa eta lana egiteko Korea ego-aldeko jente langillea.

Baiña, Ian guztietan, libiatar teknikoak dagoz murgilduta lanean gogo aundiz eta itxaropen aundiagoarekin. Petroleoaren berakada onek bultzatzen dauz lana bizkor egiten, berandu baiño lenen.

Lenengo zatia egiña dauke eta 3.300 milloi dolar bertan txautuak. Bigarrena oraintxe asteko. Tuberi bi alkarrekin joango dira eta lau milloi kubiko ur eroan dabez Tnpoli'raiño eta Libian zabalduz. Makiña bat solori emon leio bizia ainbeste urakin.

Bertan Ianean dabillen Korea-egoaldeko injeniero batek esaten ebanez, beste orrelako lanik ez da munduan osotu Txina'ko arri-esi aundia ez ba'da. Axe Ianik aundiena munduan. Ondorengoa, au izango da.

* * *

LIBURU ORLEGIA

Maotzetun'ek Liburu Gorria eukan lez, Muammar El Gaddafi koronel lendakariak be badau bere Liburu Orlegia, Rousseau'ren Kontratu Soziala gogoratzen daena. Bertan ipinten dauz bere asmakizunaren oiñarriak eta, berak diñonez, auxe da Irugarren Teoria Orokorra.

EZAGUNAK

Beste biak zerak dira, Rusoena bat eta bestea Amerika-
rrena.

Bere eritxirako alderdi politikoak ez dabe balio: bakoit-
txak bere askatasuna eta erantzunkizuna ez dauz bes-
teen eskuetan itzi bear, alderdi politikoen eskuetan be
ez.

Baiña, bere barru-barruko asmoa auxe da: Amerika-
rrak zanpatu eta bere burua Sozialista Arabiar guztien
lendakari biurtu.

* * *

1969'garrenean, El Gaddafi aginpidera eldu zanean,
petrolio-konpani guztien jabe egin zan, iraultza barri
bat eratu eta "Jamahiriya" -Aroa sortuz.

Jamahiriya erri zearen aroa da, masaren aroa: Kon-
greso errikoi bat sortu da Libia'n. Auzo bakoitxean,
lantegi bakoitxean, ofizina bakoitxean, ikastola bakbi-
txean sortzen dira alkarteak eta alkarte orreitatik Lege-
biltzarrerara doazen diputaduak eta oneik osotzen dabe
Erriaren Kongreso Orokorra, Libia'ko Estaduaren zu-
zendari.

Batzar errikoi bakoitzak (lantegietan, nekazaritzan,
Ikastola Nagusian...) eratzen dau bizi-modua, lana eta
alobera. Lan gitxiago egin nai ba dabe on euren esku
dago; baiña, orduan jornala be txikiagoa izango da eta
beste batzarrak kontu artuko dautsee ia zergaitik lan
gitxiago egiten daben... Aizkenean, zer? Itzak ederrak.

* * *

El Gaddafi jaunak, iraultza on mundu zabalera eroan
nai dau eta beste Laterrietan gazteak iraultza egin nai
ba dabe, txalogarriak dira eta laguntza zor jake.

Lantegi eta nekazaritza alkargo aundiak, guztiak Jama-
hiriya'renak dira. Alan be, dendak eta lantegiak, bakoit-
tzak berea, sortzea aske da; baiña iñor menpean artze-
rik ez dago, sozio bezala ez ba'da.

Eroskiak auzo guztietan dagoz, Laterriarenak.

Etxeak, barriz, bakoitzarena izan bear dau eta geie-
nak Agintaritzak eraikiak. Iñori norberaren etxea aloge-
ran emon ezin: zeuk erabilli edo saldu; beste biderik
ez dozu izango...

* * *

Liburu Orlegian ez da erlijiorik aitatzen; baiña, alkoo-
la debekaturik dago, arabeen artean legea dan lez. Zine-
marik ezda. Automobillak ugari kaleetan eta tabernatxo
bat noiz-beinka; baita ogi-dendak be. Beste animaziorik
ez dozu aurkituko uri aundietako ibilbideetan zear.

Liburu Orlegia dotriña-liburua da eta Kostitutzioa-
ren ordezko.

Iru zati ditu. Lenengoa: demokraziaren akatsak eta
korapilloak erriaren aginpideak askatzen ditu eta eze-
reztatu. Bigarrena: Ekonomiaren korapilloen askatzai-
llea sozialismoa da. Irugarrena: Irugarren Teori Oroko-
rrak oiñarri soziala dauko.

* * *

Sistema barri onetan, demokrazia komita errikoie-
tan, alkarte errikoietan eta langilleen elkarteetan egiten
da. Guztiok osotzen dabe eta Erriaren Kongreso Oro-
korrean alkartzen dira.

Irakatsi eta ezitzeko munduan dagozan sistema guz-
tiak apurtu bear dira, kultur-iraultza orokor baten bidez,
indarrez ezarri dautsoezan mentalitate, ideia eta gustu
guztietatik gizona askatzeko.

Alogeran oiñarritzen diran lantegi-mota guztiak dese-
gin eta euren orde zozio-arteko alkarteak sortu, arazo
gizartekoak konpondu aal izateko.

Orra or Irugarren Teoria Orokorra. Muammar El
Gaddafi'ren iraultza berri, mundu osoari eskaiña eta,
al ba'da indarrez ezarria.

ANES'ek



ETXANIZ'TAR NEMESIO

Zugatz bakanen antzeko zara
euskal baratzen aundia,
izar artean izar bakana
Euskalerriko argia;
barruko miñez eta arduraz
ikusiz Euskalerria,
zer egin leike seme on batek
maite ba-dau bere-erria!!!

Argiz argitu, suaz berotu
nai zenduan Aberria,
iltzear egon euzko endari
ixuriz arnas barria;
zure jarduna arlo orretan,
egiz, zan bildurgarria,
ezpataz baiño indartsuago
sartzen zenduan egia.

Euskal etsaiak esnatu ziran
euren gurari baltzetan,
Euskalerria ezin ikusi
beren bidezko bidetan;
euren erria maitatze arren,
zenbat lagun espexetan,
ankerkeria, an, agertzen zan
zigor eta zaurietan.

Baiña zuk apaiz eredugarri,
negar zotiña entzunik,
iñoren mina artu zenduan
anai errukiz beterik;
igarle antzo jokatu zendun
governatzaillai deiturik,
zuzentasunez ibil zeitezen
kristau legez jokaturik.

Epai eguna etorri jatzun
on egiñaren ordaintzan,
berreun abade, indar ederra,
zure lagun batu giñan;
egun aretan, arriak dardar
egozen auzitegian,
laño baltzezko ordu aretan
egiak zaindu zinduzan.

PAULIN

ARGINABARREZKO SEMEAK

Atzoko, gaurko ta bai biarko
arginabarretan jaioko ziran
ustekizunez,
semeak egin neutsozan gabari,
emen ta, bai an...
berein eskuzko alor alorbideetan
bear izan daitezken gogai, ukubil,
abesti, poema bat,
emen ta, bai an...

Eztakit denporarik izango dodan
nik geien nai dodana egiteko:
euskera eder, gurea, betiraundu,
irribarreari irribarrez erantzun,
batzuen ugaritasuna banandu,

geientsuenen miseria lurperatu,
esku guztiak laztandu,
denporeaz aztu,
aizeari biotza emon,
egoak zabaldu,
gogoa biziratu...
Baiña ezin dot ukatu
ba-dodala denporea
dana egiteko,
al dodan dana
urkoratzeko.

MUNIATEGI-TAR SABIN

EGUTEGIA

Egutegia, orririk orri jausten doan
aterrik gabeko zenbakien euria.
Geldi-geldi, tantorik tantoko jarioan
bete daroasku gure ozinen neurria.

Tantai zarkote bat iduri orbel aroan,
adarretan —odol igar— neguen zauria.
Malko eta laino aldi egunerokoan
lauso daroasku goizen urre ixuria.

Ba yoako azken orbela ixil ixilik
—dinbilidanbalako oroitzapenen egoa—
zugazti zaarreko aize otzek bilbilik.

Nik nai neuke izan Oyan Aundiko pagoa
orri barri berdeak adarretan zintzilik
Basajauna agurtzen maite-dardar betikoa.

A. BIDAGUREN

OTOTXO

Otok bere seme Ototxo akolito sartu dau elizan, akolitoak aparteko grazia daukelako eta bertan burua argitzen jakelako.

Auzoko zurgina il da eta Meza amaierakoan, aldarepean "Libera me" abesten dagozela, abadeari betaurrekoak jausi jakoz lurrera. Ototxok jaso ditu lurretik; baiña, apaizari emon baiño lenago, paltrikeratik musuzapia atera, oso zikiña egoan, eta berarekin betaurrekoak garbitu dauz.

Sakristira eldu diranean Ototxok: abadeari.

—Aizu, antiojuak garbitu dautzudaz.

—Bai. Eskerrak.

—Ez dakizu zergaitik?

—Ez.

—Lurrean mikobrioak artu ebezan eta orreik zure begietan sartu ezkeru, zer...?

—Eskerrak milla bidar, mutil.

* * *

Illerritik elizara datoztela mutikoak abadeari:

—Aizu, zenbait urte falta jatzuz ilteko?

—Zaarra al naiz, ba?

—Bai, oso zaarra. Eta zenbat urte falta jatzuz?

—Zer, ba?

—Nik zure entierroa joan nai nuke-ta...

—Ordurako aaztuko zara.

—Ez, ez, ez naiz aaztuko; promes egiten dautzut.

* * *

Ototxo egunero joan oi da aszensore edo goragaillu bateau amabigarren etxe-oñera-arte. Baiña, beste lagunik ez ba'dau, zazpigarrenean urtetan dau.

—Eta, zergaitik egiten dau ori?

—Txikia izanik, zazpigarren botoiraiño bakarrik eltzen dalako.

* * *

Ototxo kontu-kontari dabil. Onela diñotso bere lagunari:

—Itxas-ontzi bateau 15 mariñel dagoz, makinetan 10 lagun, kubiertan 8 eta gaiñera sukaldaria eta txo. Zenbat urte ditu kapitanak.

—15 eta 10 eta 8 dira 33 eta beste bi sukaldean, 35 urte.

—Ez.

—Zenbat ba?

—Berrogeita bost.

—Eta, zelan dakizu ori?

—Berak esan daustaleko.

* * *

Ariari eldu dautso eta aurrera:

—San Asensio'ko alkatearen amak Maria dau izena; aitak, barriz, Jose; bere osabak Prantxisko eta izekok Juanatxo, zelan dau izena alkateak, berak?

—Maria eta Jose ba'dira gurasoak, bera Jesus izango da...

—Ez.

—Zelan ba?

—Plorentiño.

—Eta, ori nondik asmatu dozu?

—Nik ez dot asmatu.

—Nondik dakizu, ba?

—Berak esan daustalako.

Oto aitaren argiz jantzita dabil munduan gure Ototxo.

ARRINDA'tar ANES



JUANTXO-TXIKI URDURI (11)

Aumerik ariñeketan ikusi dozu iñoz? Korri eta salto eten gabe. Bere egun guztiko lana orixe dau, titia artu ezkeroz. Ez dau beste zeregiñik.

Juantxo-txiki be aume baten antzekoa dogu: beti mogimentuan bear.

Geldi egon eziña.

Bere gorputzaren giarrak eta aragiak aziko badira, mogimentua bear dabe. Beti ibilli ta ibilli. Ibillian-ibillian aziten eta sendotzen dira. Azi, egunero eta egun osoan azten diardue, ez da ba arritzeko egun osoan ibiltzea guru umetxoa. Zelan euki geldi Juantxo-txiki?

Ezin.

Zinea gogoko jako umetxoari, zineko irudiak mogimentuan ibiltzen diralako; baiña, bere burua erabiltzea eta mogitzea askoz be geiago guztatzen jako oraindiño.

* * *

Eriotza, umearen eritxirako, geldi egotea da eta mogimenturik ez egitea. Geldi dagoena, ilda dago. Eta bizia zer izango da? Zer edo zertan ibiltea; orixe da bizirik egotea.

Juantxo-txiki bizirik dago eta orregaitik bere zoriona ibiltzen dago; geldirik ez egotean; jolasean; arin-aranga ibiltzen...

* * *

Ikasgaiak jolasean erakusten ba'dautsazuz, zorionez beteko dozu zure Juantxo-txikiren izatea. Ez dagizula geldirik euki, ildako bat balitz lez; atsekabetuko dozu barru-barruraino.

Ikasi dagizala ikastekoak gorputzagaz, anakaz edo eskuakaz dabillega. Errezago ikasiko dauz.

Orra zenbat mesede.

* * *

Denbora luzean geldirik egon ezin. Ezelan be ez. Ikastetxean eta edozertako ikastaldian, irakasleak ipiñi bearko dau mogimentuan eta geldiunetik atera. Bestela, berak urtengo dau eta jolasean asiko da. Indarrez umetxoa geldiaraztea illobian sartzearen antzekoa dozu. Ez dozu Juantxo-txiki illobian sartuta euki naiko...

* * *

Okerretik ari bada, bidea zuzendu; errezago bait da zuzentzea, bidea kentzea baiño. Urduri dago umetxoa eta egon-eziñik arrika asten bada, erruki dodaz aldameneko kristalak eta leiarrak.

Alperrik izango da geldirik egoteko esatea eta ez arrika egiteko. Obe dozu pipar-poto bat aurrean ipiñi eta emon dagiola arrika zanpatu arte.

Urari presa eta andaparoa egitea baiño errezago da kanaletik eroatea. Umearen urduritasuna eta egon-eziñak dozuz uraren indarrak; kanalak idegiten alegindu zaite.

* * *

Odoletik sortzen jako Juantxo-txikiri urduri ibiltea eta geldirik egon eziña. Geldirik dagoan umea, gaixorik dago.

Gogoan izan.

Begien aurrean euki.

Zaartzaroan etorriko jako geldirik egoteko txanda. Bitartean... dabillega ibilli.

Colón de Larreátegui, 14 - 2. dcha. BILBAO-1


Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoiari, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
batez be, emoneko berba lez daroan
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
Itxasoaren oldarra gelditzen,
gizonaren neurribako
alegiña:

BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.